

# ETA BREXIT AHAZTUTA AZKENIK BRITAINIA HANDIA EUROPAN GERATZEN BADA?

Dibortzio errazik ez da, gutxiago herrialdeen artean. Europar Batasun osoak ekin dio trantsizio nahasi bati Britainia Handiko erreferendumaren ostean. Liderrik boteretsuenek ere aitortu dute hipotesi honetarako prestatu gabe zeudela, hain zeuden seguru emaitzaz. Bereizketa ondorenerako harreman koadro berria antolatu behar dute Britainia Handiarekiko. Edo harremanak birformulatu... erreferenduma ahaztuta.



**Pello Zubiria Kamino**

@pellozubiria

Richard Branson txit aberats eta oso famatuaren hitzetatik jakin zuten askok bazegoela beste aukera bat: “Honda-mendira goaz eta bigarren erreferenduma behar genuke. Brexitaren aldeko datuak oker zeuden”. Ekainaren 28an, asteartea, esan zuen.

Aurretik, 23an britainiarrek erreferendumean erabakirik Europar Batasunetik irtetea, ostiralean eta astelehenean mundu osoko burtsek hiru bilioi –“b” hizkiz, bai– dolar galduak zituzten, Bransonen Virgin Bank diru-etxearen balioa ia %40 hondoratu...

Bigarren erreferendumaren ideia Lord Michael Haseltine Alderdi Kontserbadoreko hautetsi klasikoetako batek haizatu zuen: Parlamentuan oso garbia zela Europan jarraitzearen aldeko gehiengo eta hortik abiatuta zerbait egin beharra zegoela.

Liberal Demokraten lider Tim Farron ados zegoen zerbait egin beharrezkin eta Alderdi Laboristatik David Lammyk bide bera iradoki zuen, aurreikusiz ekonomia-aren hondamendia eta Eskoziak azkenean bere bideari ekitea. Zirrikitu legala ere aipatu zuen Lammyk: “Erreferendum hau kontsultazkoa zen, ez zen loteslea”.

Paristik *Le Monde*k jaso zuen posibilitatea: “Eta azkenean Brexitik gertatzen ez bada?”. Hipotesiak badituelako oinarriak. Hasteko, EB barrutik irtetea nahi duen estatuko lehen ministroak Lisboa-ko itunaren 50. atala abiarazi behar du, egun horretan hasten delarik korritzen bi urteko negoziaketa epea.

Jeremy Corbyn lider laboristak kanpainan eskatua zuen emaitza irtetea baldin bazen Cameronek biharamunean bertan abiarazi behar zuela 50. atal hori. Aldiz, Cameronek dimititu egin du, ondorengo agintariari utziz botoia sartzeko opari pozoitua. Lehen ministroa hautatzea dela, kargu hartzea, gobernu osatzea... lau hilabete geroago UKIpeko Nigel Farage ez den inor ausartuko da Brexit tekla sakatzera?

Eskoziak ere baldintzatuko du prozesua, eskoziarren gehiengoak *Remain* [geratu] bozkaturik. Nicola Sturgeonek fite egin ditu mugimenduak Bruselasean. Hori bezain garrantzitsua izan daiteke erreferendumaren beraren deslegitimazioa, alde guztietako funtzionario eta politikoei hasia: *Leave* [alde egin] botoaren aldekoek gezurrezko informazioa erabili zutela, era-



bakia Parlamentuari dagokiola eta ez jendeari...

Bestalde, erreferendumaren biharamunean bertan hasi zen interneten bigarren galdeketa baten aldeko sinadura biltzea, egun gutxitan lau milioi bildu zituen, berme oso gutxiko mekanismoa baina Brexitaren emaitza auzitan jartzeko giroan eragin duena. Erreferenduma balio gabetzeko horiek eta arrazoi gehiago aipatu dituzte emaitzak ezagutu ostean Europar Batasunean jarraitzearen aldeko sutsuenek.

Azkenean joango da ala ez Britainia Handia Europar Batasunetik? Irtetea nagusiki populismo eskuindarretik bultzatu duen UKIpeko buru Farage ez du zalantzarik: herritarren nahia konplizit britainiarrek agur esango diote Europar Batasunari... eta beren ondoren herrialde gehiagok, tartean Frantziak Marine Le Penen eskutik.

## Botere errealek erabakia

Aldiz, erreferendumaren emaitza ez dela beteko dio *Moon of Alabama*, AEBetako blog ezkertiar ezagunak. Bozketa-aren bezperan idatzi zuen: “*Brexit*, ez da gertatuko. Ez dio axola zer bozkaturiko



'Biz Radar' hedabidearen argazkian, UKIPeko jendeak Europar Batasunetik ateratzearen aldeko kanpainan Londresko parlamentuaren aurrean: "Itzuliezaguzue gure herrialdea berriro" diote afixetan. Yanis Varoufakisek idatzi du: "Leavek irabazi zuen, hautesle britainiar gehiegik identifikatu zuelako EB autoritarismoa, irrazionaltasuna eta demokrazia parlamentarioarekiko mespretxuarekin. Eta herritar gutxiagok sinetsi zigutela guri, bestelako EB bat posible dela". Ordainetan, dio Varoufakisek, geratzen diren herrialdeetako jendeak EBk austeritate eta burdinazko kaiolan itxiko ditu.

duten britainiarrek, botere errealek [powers that are] ez diete Europatik irtetzen lagako". Ekainaren 25ean titulatu du: "Brexitaren emaitza saihestera doaz: eskuin faxistarentzako oparia".

Bertolt Brechten obra batetik izena hartu duen *Moon of Alabamak* prestigio handia dauka –zenbait sari ere eskuratuak ditu– nahiz eta publikoak ez jakin bere egileez ezer askorik, aparte bere sustatzaile nagusiak Bernhard izena duela.

Brexitik gertatuko ez dela argudiatzeko zerrendatu ditu Europak irentsitako beste erreferendumak, hauek azkenak: 2005ean Europako Konstituzioaren kontra bozkatu zuten Frantziak (%54,9) eta Holandak (%61,5) baina alferrik, eraginik ez baitzuten izan; 2008an Irlandak Lisboako itunaren kontra bozkatu zuen (%53,2), baina erreferenduma errepikatu zuten; eta 2015ean Grezian %61,3k bozkatu zuen erreskatearen aurka, alferrik orduan ere. Ez konplitze horrek ez badu istilu larririk ekarri herrialde horietan... zergatik ekarri behar du Erresuma Batuan?

Lisboako itunaren 50. artikuluarik ez dio berehala heldu Cameronek, dio

*Moon of Alabamak*, eta hori ezean dibortzioaren ordularia abiatzen ez denez, hasierako desafioen ostean Angela Merkelek garbi adierazi du ez dela presaka ibili beharrik eta Londresko agintariei denbora eman behar zaiela erabakitze nola jokatu aurrerantzean.

Britainiarrek aurkituko dute modua erreferendumean bozkatua errespetatu dadin? Ala Europar Batasuneko burokratek eta mundializazio neoliberalaren aldeko politikariek lortuko dute erreferenduma ahazturik geratzea?

Bigarren kasu honetan, dio *Moon of Alabamak*, Brexit kaotiko batek baino kalte larriagoak eragingo dituzte. EBk are legitimitate gehiago galduko du eta "sinesgarritasuna irabaziko dute sistema bortxaz besterik ezin dela aldatu uste dutenek".

Eskuin gogorreko alderdiei arnasa emango die Europa osoan. Hauek entzulego zabala daukate politikoez bezala ekonomiak galtzaile utzi dituen jende xumeen artean, baina eskuindar populisten programa ekonomikoek desberdintasunak are gehiago handituko dizkiete: "Lehenik zuku ateratzen diete txiroei eta klase ertainei egiten zaizkien

bidegabekeriei, gero aberatsen indarra are gehiago handitzeko".

*Moon of Alabamak* uste du European falta direla ezkerreko alderdiak nazionalismoaren nostalgia erromantikoa serriotan hartu eta dena zanpatzen duen mundializazioari aurre eginez politika sozialista batekin lotuko dutenak.

Blair, Schroeder, Hollande eta beste sozial-demokratek nazionalismoa mardikatu eta mundializazio anti-nazionalista eta neoliberala goretzi dituzte. Noiz eta nazionalismoak popularitate berria irabazi duenean neoliberalismoak zanpatutako jende xumeen artean. "Eta horiek hutsik utzitako espazioa faxismoak beteko du".

*Moon of Alabamarentzako* "botere errealeak" dira globalizazioaren nagusiak, banka eta korporazio handiak eta OTAN. Bere hipotesietan ez da sartzen, nonbait, egoera berria Britainia Handiko laboristek kudeatzea Jeremy Corbyn bezalako lider batekin.

Ezkerreko nazionalismoak bultzatu ala, Yanis Varoufakisek eta beste askok proposatzen duten moduan, Europako aurrerazaleak estuago elkartu? Hautu konplikatua ezkerreko jendeentzako. ■